UZTAILEKO KIROL UDALEKUAK ANTOLATU ETA BIDERATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PLEGU TEKNIKOAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honen xedea da 2025eko uztaileko Kirol Udalekuak antolatu eta bideratzeko zerbitzua kontratatzea.

2.-MARKO KONTZEPTUALA, ARAUDIA ETA ZERBITZUAREN HELBURUAK

Gaztematika Sistemak eta Oinherri Herri Hezitzaileen sareak osatzen dute Kirol udalekuen marko pedagogikoa.

- Gaztematika Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako 28 herriren artean 2008 eta 2009. urteetan egindako prozesu parte hartzaile baten ondorioz sortutako marko komun bat da. Gaztematika Sistema honek Gipuzkoa mailan sustapenean lan egiten dutenen markoa, lan egiteko xedeak eta horiek lortzeko baliabideak definitzen ditu.
- 2020ko martxoaren 10ean Oinherri Herri Hezitzaileen sareko partaide izateko akordioa sinatu zuen Hernaniko Udalak. Akordio honek helburu du Hernaniko herriak “OinHerri Herri Hezitzailea” egitasmoa sustatzea, haurren partaidetza aktibatzea eta helburu berarekin lan egiten duten herrien arteko elkarlana saretzea.

Udalak beraz, xede nagusi du haurtzaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa horrek dituen bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa; hau da, etapa honetan nor bere bizitzako protagonista da, hiritartasun-eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zati da.
- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanakako emantzipazio-prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen da erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia-maila handiena.

Udaleku programa honek guztiz bat egiten du Oinherriren zazpi baloreekin: jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Horrez gain, udalak abian dituen plan eta lan ildoekin bat egiten du:

-Tratu onak, parekidetasuna eta sexu aniztasuna.
- Kulturartekotasuna.
-Euskara plana: udalekuetan euskararen erabilera soziala sustatzen da.
-Harrera plana: haur etorri berriei lagunarte berria aurkeztu eta gizarteratzea errazten die, euskarara hurbilduaz.
-Tokiko garapen jasangarria: kontsumo arduratsua, naturarekiko errespetuzkoa eta herrikoa sustatzen du.
- Altxa Burua Hernani!: gailu digitalen erabilera arduratsua sustatzeko.

Araudia:

Udalekuak antolatzeko kontuan izan beharreko araudia:

-**Udalekuak arautzen dituena:** ekainaren 25eko 170/1985 DEKRETUA, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea araupetuz.
-**Haur eta gazteen aisialdi-jarduerak**: martxoaren 10eko 2/2022 LEGEA, Gazteriarena (24. artikulua).
-**Parte-hartzaileen datuen erabilera:** 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 /(EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena/Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalen babesari buruzkoa. / Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa.
-Haurrak indarkeriaren aurrean babestekoa: ekainaren 4ko 8/2021 LEGE ORGANIKOA, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko lege organikoa (LOPIVI)
-Pertsona boluntarioak badaude: 45/2015 Legea, urriaren 14koa, Boluntariotzarena.
- 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.

Helburuak:

- Haurrekin aisialdi hezitzailea eta erakargarria antolatzea, bizi-esperientzia berriak eraikiz.
- Haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea. Eurek eraikitako aisia hezitzailea sustatzea.
- Haurren arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.
- Haurrak bere osotasunean garatzeko bitartekoa izatea.
- Haurrak ahalduntzea eta burujabe izaten ikastea. Autoestimua eta motibazioa lantzea.
- Haurrek askotariko jarduera fisiko eta kirol jarduerak probatzea eta ezagutzea.
- Kirola eta jarduera fisikoa eginez gozatzea.
- Haur taldeetan gerta daitezkeen askotariko botere-harreman guztien arteko oreka bilatzea. Bereziki genero artekoak, heldu eta haurren artekoak eta taldearen eta inguru naturalaren artekoak.
- Haurrak askeagoak egiten dituzten balioekin jolastea; talde-lana, elkarlana, eskuzabaltasuna, errespetua, berdintasuna,…
- Haurren aniztasuna errespetatzea eta balore gisa lantzea.
- Udalekuak euskaraz garatzea; euskararen erabilera soziala indartzea, bizipen positiboekin lotuz.
- Partaideek herriaren eta bertako eragileen inguruan duten ezagutza areagotzea.
- Hernaniko eragileen partaidetza udalekuetan ahalbidetzea.

3.- KIROL UDALEKUEN EZAUGARRIAK

Hernaniko Udalak Kirol Udalekuak programaren ezaugarri nagusiak finkatuak ditu. Elkarte edo enpresak ezaugarri hauetara moldatuko du bere eskaintza.

PARTAIDEAK:

* Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako haurrentzat antolatzen diren jarduerak dira Kirol Udalekuak.

* Haur-talde bakoitzeko gehienezko kopurua 22 lagunekoa izango da.

* Begiraleak. Gutxieneko kopuruak: 2 begirale talde bakoitzeko.

* Haur-taldeak antolatzerako orduan kontuan izango dira:
  -Sexu-generoaren arteko oreka
  -Hizkuntza irizpideak, euskararen erabilera sustatzeari begirakoak
  -Ikastetxeetatik jasotako informazio esanguratsua

* Parte hartzeko nahitaezkoa da Hernanin erroldatua egotea edota, erroldatuta egon ez arren, herriko ikastetxeren batean ikasten aritzea.

EGUTEGIA:

* Edizio bakoitzerako datak Udalak zehaztuko ditu; uztailean zehar 3 astez egingo da eskaintza. Hala, 2025. urtean, ekainaren 30etik uztailaren 18ra izango dira, astelehenetik ostiralera eta, gutxienez, 3 ordu eta erdiko jarduera izango da, egunero, goizetan, 09:30etik 13:00 arte.

LAN TALDEA:

* Begiraleak. Gutxieneko kopuruak: talde bakoitzak 2 begirale izango ditu, gutxienez. Begiraleen artean sexu-generoaren arteko oreka bermatuko da.

* Lan taldea: zuzendariak eta talde bakoitzeko 2 begiralek osatuko dute, gutxieneko lantaldea.

* 2024. urtean, gutxi gorabehera, 155 haurrek hartu zuten parte.

* Gehienezko plaza kopurua zehazteko informazioa: gehienez 18 begirale, koordinatzaile bat eta zuzendari bateko lan-taldea izango da. Momentuko araudi eta egoeraren baitan udalarekin batera adostu daitezke parte hartzaile mugak eta beste haur-talde eta begirale antolaketak. Gehienezko kopurua baino haur gehiagok ematen badu izena, lehentasuna izango dute herriko ikastetxeetan ikasten ari diren haurrak. Lehentasun irizpidea aplikatuta ere gehiegizkoa bada kopurua, zozketa egingo da.

* Esleipenduna arduratuko da begiraleekin programazio-formazio saioak egiteaz Udalekuak hasi aurretik, gutxienez 8 orduko formazioa izango da. Berdintasunaren oinarrizko kontzeptuak, hezkidetza eta prebentzioa landuko ditu. Horrez gain, haurren artean euskara sustatzeko estrategiak ere bai. Zuzendariak eta koordinatzaileak ere aipatu formazioa jasoko dute. Esleipendunak udalekuetarako aurkeztutako proiektu pedagokikoa landuko du begiraleekin, hala nola koordinazioa, eta talde kohesioa. Gai espezifikoak lantzeko enpresa adituak kontratatzeko aukera izango du.

4.-FUNTZIOAK

Zuzendaria

- Kirol Udalekuak planifikatu, antolatu, kudeatu eta ebaluatzea.
- Administrazio, lege eta ekonomia mailako kudeaketa eta koordinazioa lanak egitea.
- Hezkuntza-prozesuetan jardutea koordinatzaileekin batera.
- Astialdian animazioko teknikak eta hezkuntza-baliabideak baliatzea.
- Koordinatzaileekin batera begirale-taldea koordinatu, dinamizatu eta ikuskatzea.
- Begirale taldearen bidelagun izatea: begirale taldeak zuzentzea, motibazioko eta laguntzako teknika bidez; bide-laguntza eta aholkularitza teknika eskaintzea.
- Babeserako Delegatuaren funtzioak.
- Beste eragile batzuekin koordinatzea.
- Udalarekin koordinatzea.
- Osasun larrialdiei arreta ematea.
- Materiala kudeatzea.

Koordinatzailea

- Udalekuen planifikazioan, antolaketan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzea.
- Hezkuntza-prozesuetan jardutea.
- Astialdian animazioko teknikak eta hezkuntza-baliabideak baliatzea.
- Zuzendariarekin batera begirale-taldea koordinatu, dinamizatu eta ikuskatzea.
- Espazio eta baliabideak kudeatzea.
- Gurasoekin harremanak izatea.
- Beharrezkoa den kasuetan, haurren jarraipena egitea.
- Begirale-taldean dinamizazio-teknikak aplikatzea: taldearen ezaugarrien, trebetasunen, gaitasunen, abilezien eta jarreren, kohesioaren eta abarren analisia eginez.

◦ Begirale-taldean eta eragileen artean informazioa eta komunikazioa kudeatzeko teknikak garatzea.

◦ Begirale-taldearen garapen-prozesua bideratzea: taldearen funtzionamendua, jarraipena eta ikuskapena, zereginak eta funtzioak banatzea, informazio-teknikak, prestakuntza eta orientazioa, gatazken kudeaketa, taldearen zaintza, ...

◦ Begirale-taldearen lana antolatzea: harrera egin eta koordinatzeko prozedura, taldearen arauak, parte-hartze mailaren kudeaketa eta ebaluazioa, denboren eta espazioen balorazioa...

Begiraleak

- Haurrentzat eta gazteentzat diren aisialdi hezitzaileko jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.
- Talde-animazioko teknika espezifikoak aplikatzea, baloreen heziketa esplizituki azpimarratuz eta arriskuen prebentzioko oinarrizko neurriak aintzat hartuz.
- Aisialdian animazioko teknikak eta hezkuntza-baliabideak erabiltzea.

Ekainaren 25eko 170/1985 DEKRETUAk, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea araupetuz izenekoak jasotzen duenez: Udalekuko zuzendariak “Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretarako zuzendari” titulua izango du. Gainerako langile taldearen % 40ak gutxienez “Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueretako begiralea” titulua izango du.

Esleipendunak bermatuko du izendatzen diren langileak gai direla beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko. Honenbestez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 euskara gaitasun maila edo pareko maila duten langileak izango dira zuzendaritza eta koordinazio postuetan eta B2 maila edo parekoa dutenak begirale postuan. Izendatutako langileen artean aldaketarik balego, behar adinako prestakuntza duten langileek ordezkatuko dituzte.

Enpresa esleipenduna arduratuko da bere ardurapeko langileek adingabeko nahiz adinez nagusiko norbaiti sexu-delitua egiteagatik aurrekari penalik ez dutela ziurtatzen duen ziurtagiria badutela egiaztatzeaz. Horretarako, Justizia Ministerioak sexu delitugileen erregistro zentral bat gaitu du, 2016ko martxoaren 1ean indarrean jarri zena.

5.- ESLEIPENDUNAREN EGITEKOA

a. Eskaintza hasi aurretik:

- Udalekuen plangintza eta prestaketa lanak egitea genero-ikuspegia txertatuz.
- Begiraleak hautatzea eta lan-kontratua egitea, Udalak jarritako irizpideak kontuan hartuta.
- Haur taldeak osatzea.
- Begiraleekin batera programazioa prestatu eta burutzea.
- Uztailean lana egiteko hautatzen diren begiraleekin batera udalekuetarako programazioa osatzeko formakuntza saioa bere osotasunean prestatzea eta dinamizatzea.
- Udalekuen zuzendaritza eta koordinazio lana egitea.
- Udalekua aurrera eramateko beharrezkoa den aseguru estaldurak kontratatzea.
- Praktikaldian egongo diren pertsonen kudeaketa egitea.
- Beharrezkoa bada, irakasleekin biltzea, haurren inguruko informazioa esanguratsua partekatzeko.
- Udalekua hasi aurretik, parte-hartzaileen guraso eta tutoreekin informazioa emateko bilera egitea. Guraso eta tutoreei informazioa bidaltzea postaz. Bertan jaso beharko da, besteak beste, taldeen osaketa, egitaraua eta kontuan izan beharreko oharrak.
- Beharrezkoa den materiala erostea.

Esleipendunak ekainaren lehen hamabostaldia amaitu baino lehenago aurkeztu beharko du gauzatuko den programazio zehatza, oniritzia jaso ahal izateko. Bertan, alderdi hauek zehaztuko dira:

- Asteko programazioaren egitura
- Udal instalazioak erabiltzeko egutegia eta ordutegia: igerilekua, kirol azpiegiturak, espazio publikoak, ikastetxeetako gelak eta abar.
- Haur taldeen zerrendak topatze lekuetan antolatuak.

Esleipendunak komunikazio bideak aktibo mantenduko ditu udalarekin adostutako datetan, udalekuak hasten direnetik amaitzen diren arte.

b. Eskaintzak irauten duen bitartean:
- Udalekuaren dinamizazioa eta koordinazioa egitea
- Giza-baliabideak kudeatzea.
- Begirale lan-taldearen dinamizazioa eta jarraipena egitea.
- Guraso eta tutoreen baimenak eta onarpenak lortu eta txukun artxibatzea.
- Udalekuen jarraipen bileretan parte hartzea
- Praktikaldian dauden begiraleen jarraipena eta balorazioa egitea.

c. Eskaintza amaitu ondoren:
- Udalekuen ebaluazio teknikoaren txostena aurkeztea eta hobetzeko proposamenak egitea.
- Haurrek, gurasoek eta tutoreek ebaluazioa egitea.

Ebaluazio txostenak honako informazio hau jasoko du:
- Parte-hartzaileen kopurua, sexu-generoaren, adinaren eta ikastetxearen arabera bereizita eta bertaratzearen batezbestekoa.
- Helburu espezifikoen lorpen-maila.
- Programazioaren balorazioa genero-ikuspegia txertatuz.
- Begirale zerrenda eta lan egindako egunak.
- Hezkuntza-harremanaren balorazio orokorra genero-ikuspegia txertatuz.
- Koordinazio, baliabide, erabilitako espazio, bilera eta jardueren balorazioa.
- Familiei eta partaideei egindako ebaluazioaren emaitzak eta horien azterketa.
- Hobetzeko proposamenak

Esleipendunak irailaren lehen astean aurkeztuko du ebaluazioa.

6. - HIZKUNTZA

Udalak bere hizkuntzazko jarduerak arautzeko dituen planak izango ditu oinarrian; hala, zerbitzua ahoz eta idatziz euskaraz emango du. Gurasoekiko mantentzen duen komunikazioan, ahoz zein idatziz, euskarak izango du lehentasuna, eta, behar izanez gero, elebietan bideratuko da. Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko nahiz idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Horretaz gain, udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera.

7. - BERDINTASUNA BERMATZEKO NEURRIAK

Enpresa esleipendunak komunikazio berdinzalea erabiliko du, ahoz, idatziz eta irudi bidez. Zentzu horretan, berdintasunaren, aniztasunaren eta erantzunkidetasunaren balioak sustatuko ditu.

8.- UDALAREN EGITEKOA

- Izen-ematea kudeatzea eta tasa kobratzea.
- Programaren hedapenaz arduratzea.
- Koordinazio taldearekin etengabeko harremanean, udalekuen jarraipena egitea.
- Koordinazio lantaldearekin batera udalekuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Udalekuak aurrera eramateko beharrezkoak diren espazioak eskaintzea.
- Ahal den guztietan esleipendunari laguntzea.

9.- ASEGURUA

Esleipendunak aseguru polizak izan beharko ditu, adierazitako erantzukizunak behar bezala bermatzeko, betiere espedientearen xede diren zerbitzuei edo lanei dagokienez.

Ustiapeneko erantzukizun zibil eta erantzukizun zibil profesionaleko aseguru-poliza bat eduki beharko du, zeregin profesionalean egindako txosten eta zerbitzu profesionaletatik eratorritako akatsen edo ez-egiteen ondorioz udalari eta hirugarrenei eragindako kalte ekonomikoen erreklamazioak bermatzeko.

Esleipenduna behartuta egongo da kontratatutako polizak indarrean mantentzera kontratuak irauten duen bitartean, eta indarraldi hori egiaztatzera, kontratuaren berritze bakoitzean primaren azken ordainagiria eta klausula honetan eskatutako polizen kopia edo kopiak aurkeztuz. Mugak: 1.200.000 €/ (gutxienekoa 600.000 €).

Ez da biktima bakoitzeko inolako azpi-mugarik onartuko, lan-istripuei dagokien estaldurarako izan ezik; kasu horretan, ezingo da 450.000 eurotik beherakoa izan biktima bakoitzeko.

Poliza horretan Hernaniko Udala aseguratu gehigarri gisa sartu beharko da, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Esleipendunak poliza horren estaldura mantendu beharko d, gutxienez, egindako zerbitzu profesionala amaitu edo entregatu ondorengo urtean. Epe hori luzatu ahal izango da, esleipendunak hala erabakitzen badu, bere legezko erantzukizunak behar bezala betetzeko.

Enpresa esleipendunak bere azpikontratistei eskatuko die (halakorik balego) aseguruak kontrata ditzaten eta klausula honetan jasotako betebeharrak bete ditzaten. Betebehar hori ez betetzeak ez du esleipenduna HERNANIKO UDALArekiko betebeharretatik salbuetsiko.

Nolanahi ere, esleipendunaren kontura izango dira aseguruen frankizien zenbatekoa eta ezbeharren zenbatekoa, aseguru-polizetan ezartzen diren mugak gainditzen dituen zenbatekoan. Era berean, bere kontura izango dira hirugarrenei eman beharreko kalte-ordainak eta edozein arrazoi dela-eta horietan estali ez diren kalte-galerak.

10.- ESKAINTZA: PROIEKTUA ETA JARRAIPENA

Uztaileko udalekuak koordinatzeko egitasmoa edo proiektua aurkeztu beharko da eta bertan honako alderdi hauek jaso beharko dira, besteak beste:

UDALEKUAK KOORDINATZEKO PROPOSAMENA
1. AURKEZPENA
2. ARLO PEDAGOGIKOA
2.1. Marko teorikoa (oinarri teorikoa)
2.2. Helburu nagusiak
2.3. Lan metodologia
2.4. Formazio saioa
3. PROGRAMAKETA
3.1. Egunez eguneko planifikazioa
3.2. Eguraldi txarretarako programazioa
3.3. Materiala
4. LANTALDEA
4.1. Lantaldearen osaketa eta funtzioak
4.2. Begiraleen hautaketa
5.KOORDINAZIORAKO MODUA
5.1. Zuzendaria-begiraleak
5.2. Begiraleak-gurasoak
5.3. Begiraleen artean
6. EBALUAKETArako metodologia

Hernanin, 2025eko otsailaren 21ean